



EGUNEKO TITULARRAK | AGENDA | EZTABAIDA | ZERBITZUAK | IRUDIETAN | MERKATU TXIKIA | AGURRAK | TXOKOA | ZEUK IDATZI | HEMEROTEKA

DONOSTIA

Aiete
 Altza
 Amara Berri
 Amara Zaharra
 Añorga
 Antigua
 Bidebieta
 Egia
 Erdialdea
 Gros
 Ibaeta
 Igeldo
 Intxaurreondo
 Loiola
 Martutene
 Parte Zaharra
 Zubieta



Harpidetu zaitetz

Tolosaldeko hitza
 Oarsoaldeko hitza
 Urola-Kostako hitza

Dagoeneko milaka lagunek eguneroko prentsa euskar irakurtze

irutxulokohitza.info >> Irakurleen berriak>>

> ALTZA

Altzakoa eta Pasaia

I. Landa

Agustin Migeltorenak ez du Koldo Izagirre ulertzen; Altzakoa eta Pasaia dela esatea nahasmena sortzea omen da. Niri, ordea, Migeltorenak diona kosta zait ulertzea. Antxo izena bera altzatarra eta pasaitarra da, desagertutako baserri altzatar baten izena eta Pasaia barrutiarena. Pasaia-Lezo Lizeoaren izenak, adibidez, nortasun bikoitzaz hitz egiten du eta, gauza polita, Antxoko ikastola berria, ez dute eraiki ez Pasaian, ez Lezon, Altzan baizik. Etorkizunean, gure zoritzarrerako, Altzako baserri lur hauek, Pasaia eta Donostiako udalek nahi duten bezala, etxebizitzetaz betetzen badituzte Lizeoak altzatar ikasleez gainezka egon daiteke eta, agian, Pasaia-Lezo-Altza Lizeoa izena hartu beharko du.

Migeltorenak ez bezala, nik identitate bikoitzak, hirukoitzak... oso gustukoak ditut. Are gehiago, identitate bakarretaz hitz egiten dutenekin kontuz eta mesfidantzaz aritzen naiz, zere bere burua modu itxi batean definitu ondoren besteak ere modu berean kalifikatzen eta klasifikatzen hasten dira eta ez dituzte besteak bakean uzten.

Identitateaz gain, bidegarritasun ekonomikoetaz hitz egiten du. Horretan ere ikuspegi estua dauka. Altzatarrok zergak Donostian ordaindu eta Pasaia ekipamenduz baliatzen omen gara. Eta? Pasaia hainbat alkate ohi ere Donostian bizi dira, Donostian ordaintzen dituzte haien zergak, eta hor dabilzate, ordea, azken hilabete hauetan areto pasaitarrak erabiltzen. Eta oso ondo iruditzen zait. Migeltorenak anbulatorioa hartzen du adibide gisa, eta adibide okerra aukeratu du, denok dakigu eta anbulatorioa udalei ordaintzen dizkiogun zergekin ez dela ordaintzen, udal administratziotik kanpo dagoela. Bere jokora jolastuz, altzatar batek esan lezake Pasajes futbol taldeak bere partiduak Moliano futbol-zelaian jolasten zituela orain dela gutxi arte, Altzako lurretan; eta pasaitar guztien zaborrak Altzako lurretan biltzen dituztela. Eta? Nora garamatza kontu garbiketa horrek?

Pasaia bidegarritasuna ez dut uste Altzari bere lurak kentzetik etorriko denik, horrek bide laburra egingo baitu. Pasaia bidegarritasuna ingurukoekin zerbitzuak konpartitzetik etorriko da, eskualdeko ikuspegitik. Administrazioek biltzen dituzte guk ordaintzen ditugun zergak eta beraien ardura da dauzkaten baliabideak koordinatzea eta hiritarrei, altzatarrek zein pasaitarrak, zor diguten bizi kalitatea ziurtatzea. Hori ahaztu egiten zaienez, hiritarroi dagokigu behin eta berriro hori gogoraraztea eta exijitzea.

>> IRAKURLEEN IRITZIAK

Altzatar batek | 2006-05-09 | 09:42:00 |

e! "altzatar batek" ni naiz, zu "beste altzatar batek" izango zea ez? jejeje edo nik idatziko nuen mezu hori? jejeje ez det uste, baina nik idatzi izan banu bezalaxe txo. AUDITZ AKULAR UTZI PAKEAN!!!

Altzatar batek | 2006-05-07 | 16:52:37 |

Altzatarra naiz eta harro gainera. Nazkatuta nago memelokeria

AGENDA

> ANTZERKIA

ANTIGUA. Umorezko antzerkia(2006-05-19)

> MUSIKA

ANTIGUA. Udaberriko kontzertuak(2006-05-19)

ekitaldi guztiak ikusi

IRAKURLEEN BERRIAK

▶ **25 urteDYArekin**

▶ **Altzakoa eta Pasaia**

▶ **NAFARROA OINEZ-en ALDE MUS TXAPELKETA GROSEKO MARRUMA ELKARTEAN**

Zure inguruko berriren bat bidali nahi diguzu?

hauekin denak funtsik gabekoak direlako. Tartean interes ekonomikoak besterik ez daude eta pertsonak ez dira existitzen. Triste da benetan. Hobe lukete Altza behar den bezala zaintzea eta Auditx-Akular parke naturala egitea denontzat onuragarriago eta osasungarriagoa litzateke eta. ADITZ-AKULAR GELDITU!!!!

| 2006-05-02 | 23:07:49 |

bla, bla, bla...

barrez lehertzen denari | 2006-05-02 | 18:05:17 |

errespetu pixka bat altzatarroi, agian zu baino urrutiago joandakoak garelako, eta hala ez balitz ere, auzo superpoblatur batean duintasunez bizi garelako. Hori bai ez gara Amaran jaio, horregatik agian gizaki errukarriak gara.

Gauza ez da muga dagoen edo ez, ezta Euskal hiri delakoa ere. Euskal hiriarena oso ongi dago, baina bertako baliabideak banatu behar dira, hau da, ez da kaka guztia kakaztuta dauden lekuetan sartu behar eta azpiegitura eta edifizio, parke eta abar modernoak, betiko tokian jarri behar. Batzuk nazkatuta gaude bigarren mailako donostiarrak izateaz, nun daude auzoarentzat hitz eman zizkiguten berritze eta azpiegitura berriak? Espaloi ziztrin bat konpontzearekin ez da nahikoa. Nun dago polikiroldegiaren 2. fasea, orain dela urte dextente adostutakoa? 2.fase horren arabera, igerileku ireki batzuk eraikitzeke asmoa zegoen, futbol zelaia, teniseko pista irekiak, ... Eta igerilekuak egon beharko lukeen tokian, ba al dakizue zer dagoen? Parkin bat, duela urte pare bat edo egina, beraz igerilekutaz ahaztu beharko ez? 20.000 pertsona baino gehiago bizi gara Altzan, eta gaixo jarri ezker, ambulategian zita bat eskatu nahi badezu aste bete barru emango dizute! Ordurako noski, bi aukera, edo sendatuta edo residentzian. Eta hauen tankerako mila gauza. ASKI DA!! pd: ez dezue Donostiako udaletxean lan egingo ez? Asmatu al det???

Barrez lehertzen | 2006-05-02 | 12:13:04 |

Benetan patetikoa iruditzen zait XXI. mendean horrelako debateetan sartzea. Ez al duzue beste ezer hoberik zuen denbora xahutzeko? Gaur egungo "Euskal Hirian" Donostia metropoli baten moduan funtzionatzen da, Lasarte-tik Errenteriarra, denok bat... Eta hori ukatzen duenak, benetan ez du errealitatea behar-bezala ulertzen. Bizitza osoan Altzatik atera ez denarentzat, zaila izango da ulertzen, baina Amaran jaio, bere lehen etxebizitza Errenterian duena, eta ezkondu ostean Lasartera joaten denarentzat, ez dago Altza-Pasaia gezurrezko mugarik.

Altzatar batek | 2006-04-28 | 11:57:44 |

Ados nago diozunarekin, hala ere azpimarratu nahi nuke, bai Pasaia eta bai Altzako bidegarritasuna ez dela (egin nahi den bezala) izugarriko interbentzio inmobiliaria eginez lortuko. Auditx Akular eta Molinao inguruko lurak herritarron onerako erabili behar dira, zentzu horretan Altza XXIek proposatzen duen osasun guneko edo parkearen proiektua oso interesgarria delarik guztiontzat.

>> BIDLALI ZURE IRITZIA

Izena:


Eposta:

Titulua:

Testua:

--=Mezua Bidali=--

© Donostiako Hedabideak S.L. - Katalina Elizegi 36 behekoa, DONOSTIA



Internet Ehuntzen S.L.-k garatutako webgunea